

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

AZKOITIKO UDALA

Iragarkia

2020ko urtarrilaren 29ko Udalbatza Osoak, beste batzuen artean, honako akordioa onartu zuen:

Lehena. Kontziliazio-baimenen inguruan, Eudelek proposaturiko ondoko akordioa hartzea:

1. *Aplikazio-eremua.*

Azkoitiko udaleko langileei, izan funtzionario, lan-itunpeko edota ebentualei, aplikatuko zaie.

2. *Erabakiaren xedea.*

Ondorengo baimen hauek parekatzea; jaiotzagatik ama biologikoarentzat, adopzio-, adopziorako zaintza- edo harrera-kasuetarako ematen diren baimenak eta ama biologikoa ez den gurasoentzat jaiotza-, adopziorako zaintza- edo harrera-kasuetarako ematen diren baimenak; honela parekatuko da:

Ama biologikoa ez den beste guraso baten baimenaren iraupena 126 egun naturalekoa izango da, seme edo alaba baten jaiotza, adopzio aurreko zaintza, harrera edo adopzioagatik; horietatik, gertaera eragilearen ondoko sei asteak nahitaezko atsedenaldia izango dira.

Baimen hori bi aste luzatuko da, aste bat guraso bakoitzarentzat, seme edo alaba ezindua bada, eta seme edo alaba bakoitzeko, bigarrenetik aurrera, jaiotza, adopzio aurreko zaintza edo harrera anizkoitza bada; eta jaiotza-datatik, adopzio aurreko zaintzaren edo harreraren administrazio-erabakitik, edo adopzioa eratzen duen ebazpen judizialek aurrera hartu beharko da.

3. *Baimena eskatzeko jarraibideak.*

Aurreko puntuan aurreikusitakoa urratzen ez duen guztian, seme edo alabaren jaiotzagatik, adopzio aurreko zaintzagatik, harreragatik edo adopzioagatik ama biologikoa ez den gurasoaren baimena hartzeko, Enplegatutako Publikoaren Oinarriko Estatuaren Legearen Testu Bateginak 49 c) artikuluan jasotako estipulazioak bete beharko dira, eta, ondorio horietarako, ez dira aplikatuko baimen hori arian-arian aplikatzeko aipatutako lege-arauaren bederatzigarren xedapen iragankorrean aurreikusten diren epeak.

Aurrekoa gorabehera, lanaldi irregularra duten langileek, haien lanaldia ziklikoki ondoz ondoko egun batzuetako oporraldiak ezartzen dituzten lan-egutegien bidez banatzen bada, etendako baimena hartu ahal izateko, gutxienez bi aste natural osoko gutxienezko aldiak eskatu beharko dituzte, edo, bestela, proportzionaltasun-printzipioari eutsiko dioten antzeko beste formula batzuk erabili ahal izango dituzte.

4. *Aplikazioa.*

Egitate sortzailea 2020ko urtarrilaren 29tik aurrera –Udalbatzak baimena ezartzea onartzen duenetik– gertatzen den baimen-kasuetan aplikatuko da.

AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Anuncio

El Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el 29 de enero de 2020, entre otros, aprobó el siguiente acuerdo:

Primero. En relación con los permisos de conciliación, adoptar el siguiente acuerdo propuesto por Eudel:

1. *Ámbito de aplicación.*

Se aplicará al personal del Ayuntamiento de Azkoitia, ya sea funcionario, laboral o eventual.

2. *Objeto de la decisión.*

La equiparación de los siguientes permisos; los permisos de nacimiento que se conceden a la madre biológica, en los casos de adopción, guarda con fines de adopción y acogimiento, y los permisos de nacimiento que se conceden a las partes progenitoras distintas a la madre biológica en los casos de adopción, guarda con fines de adopción y acogimiento, se equiparán como sigue:

El permiso de la parte progenitora distinta a la madre biológica tendrá una duración de 126 días naturales por nacimiento, adopción, guarda con fines de adopción y acogimiento de un hijo o hija, de los que las seis semanas siguientes al hecho causante serán de descanso obligatorio.

Este permiso se ampliará en dos semanas más, una para cada uno de los progenitores, en el supuesto de discapacidad del hijo o hija, y por cada hijo o hija a partir del segundo en los supuestos de nacimiento, adopción, guarda con fines de adopción o acogimiento múltiples, a disfrutar a partir de la fecha del nacimiento, de la decisión administrativa de guarda con fines de adopción o acogimiento, o de la resolución judicial por la que se constituya la adopción.

3. *Instrucciones para solicitar el permiso.*

En todo aquello que no contravenga lo previsto en el punto anterior, el permiso del progenitor diferente de la madre biológica por nacimiento, guarda con fines de adopción, acogimiento o adopción de un hijo o hija se registrará por las estipulaciones contenidas en el artículo 49 c) del Texto Refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público. A estos efectos, no resultarán de aplicación los plazos previstos en la disposición transitoria novena de la citada norma legal para la progresiva aplicación de dicho permiso.

No obstante lo anterior, los trabajadores y trabajadoras con jornada irregular cuya jornada de trabajo se distribuya cíclicamente a través de calendarios laborales que establezcan periodos de vacaciones de varios días consecutivos, para poder disfrutar del permiso interrumpido deberán solicitar periodos mínimos de dos semanas naturales completas o, en su caso, podrán utilizar fórmulas similares que mantengan el principio de proporcionalidad.

4. *Aplicación.*

El hecho causante se aplicará en los casos de permisos que se produzcan a partir del 29 de enero de 2020, es decir, desde la aprobación por el Pleno del permiso.

Hirugarrena. Akordio honek ordezkatu egiten du Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetako langileen lan-baldintzak arautzen dituen Akordioak (Udalhitz 2008-2010) 48. artikuluan ezarritakoa, bai eta beste edozein akordio, itun edo xedapenetan ezarritakoa ere, baldin eta baimen gehigarriak ezarzen badira ama biologikoa ez den gurasoarentzat, seme edo alabaren jaiotza, adopzio-helburuko zaintza, harrera edo adopzioagatik.

Laugarrena. Erabaki hauek Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, Udaletxeko iragarki taulan eta gardentasun atarian argitaratzea, eta udaleko langileen ordezkariiei jakinaraztea.

Azkoitia, 2020ko urtarrilaren 30a.—Javier Zubizarreta Zubizarreta, alkatea. (628)

Tercero. El presente acuerdo sustituye a lo establecido en el artículo 48 del Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal de las instituciones locales de la Comunidad Autónoma del País Vasco (Udalhitz 2008-2010), así como a cualquier otro acuerdo, pacto o disposición que establezca permisos adicionales para las partes progenitoras distintas a la madre biológica por nacimiento, guarda con fines de adopción, acogimiento o adopción.

Cuarto. Publicar los presentes acuerdos en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en el Portal de transparencia, y comunicarlos a los representantes de los trabajadores/as municipales.

Azkoitia, a 30 de enero de 2020.—El alcalde, Javier Zubizarreta Zubizarreta. (628)